

‘Crossover. Cultura de Series’ jaialdiak ‘La caza del solitario’ telesailaren estreinaldi eksklusiboa eta ‘La vida breve’-ren proiektzio berezia hartuko ditu bihar, Movistar Plus+-en eskutik.

- *‘La caza del solitario’-ren estreinaldi eksklusiboa 20:00etan izango da, Tabakalerako zinema aretoan, eta bertan izango dira Carles Porta sortzailea eta Jorge Ortiz de Landáuzuri, Movistar Plus+-eko Ez Fikziozko Originalen kudeatzailea.*
- *‘La caza del solitario’ Movistar Plus+-en jatorrizko minisail dokumentala da, eta hiru atal ditu.*
- *‘La vida breve’ telesailaren lehen atalaren proiektzioak, 18:30ean, Tabakalerako zinema aretoan, Carlos Cholz protagonista, Adolfo Valor eta Cristobal Garrido sortzaileak eta Susana Herreras, Movistar Plus+-eko Ekoizpen Original Fikzioaren gerentea, izango ditu gonbidatu.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailak Kultur Factory kultur agentziarekin batera antolatutako ‘Crossover. Cultura de Series’ jaialdiak Movistar Plus+-en ‘La caza del solitario’ ez-fikziozko telesailaren estreinaldi eksklusiboa hartuko du bihar. **Carles Porta** sortzaileak aurkeztuko du, **Jorge Ortiz de Landáuzuri** plataformako Ez Fikziozko Originalen gerentearekin batera. Gainera, Movistar Plus+-en jatorrizko ‘La vida breve’-ren lehen atalaren proiektzio berezia ere egingo da.

Goizane Álvarez Kulturako diputatuak gogorarazi duenez, “Crossover-ekin gure eskaintza kulturala indartu nahi dugu lurraldean, eta hori egiten dugu kateen eta plataformen etengabeko eta gero eta handiagoa den babesarekin, edizio bakoitzean jaialdia aukeratzen baitute beren proiektu interesgarrienetako batzuk aurkezteko”.

‘La caza del solitario’

Bihar 20:00etan, Crossoverrek ‘La caza del solitario’ telesailaren erabateko estreinaldia hartuko du; **Carles Portak** zuzendutako hiru ataleko minisail dokumentala da, eta Movistar Plus+ plataforman estreinatuko da, apirilaren 10ean. Biharko saioa Tabakalerako zineman egingo da Lehen kapitulua proiektatuko da eta ondoren solasaldia izango da **Carles Porta** eta **Jorge Ortiz de Landazurirekin**.

Telesailak **Jaime Giménez Arberen** (‘El Solitario’ ezizenez ezaguna) jazarpena eta harrapaketa azaltzen ditu. Arbe hamar urtez baino gehiagoz bankuak lapurtzen aritu zen.

Portak Espainiako kronika beltzaren kasu mediatikoenetako bat disezionatzen du, bere ohiko zorrotasun eta errespetuarekin eta bere narrazio- eta ikusmen-estilo oso zinematografikoarekin.

Telesaila egiteko, kasuaren sumarioan sartu dira Porta eta bere taldea, eta haren inguruan lan egin zuten ikertzaile, abokatu eta kazetariak elkarrizketatu dituzte, kriminala atxilotzera eraman zuen ikerketaren ikuspegi zehatz eta sakona eskainiz.

Carles Porta ez fikziozko kazetari garrantzitsuenetakoa da Estatuan. Kazetaritzako Ortega y Gasset sariaren aipamen berezia jaso du, eta ibilbide luzea egin du kazetari, idazle, telebistako erreportari, gerrako korrespontsal, ikus-entzunezko produktore, gidoilari eta zinema-zuzendari gisa. Kronika beltz nazionalean zorrotasunez murgiltzen diren liburuak argitaratu ditu eta bere irrati eta telebista ibilbide arrakastatsuak ahots ezagugarri eta jada ezinbesteko bihurtu dute true crime generoan, besteak beste, 'Por qué matamos' podcastari eta pantailan egindako lanei esker, hala nola, 'Crímenes', 'El crimen de la Guardia Urbana' eta 'Luz en la oscuridad'.

'La vida breve'

18:30ean, Tabakalerako zineman ere, 'La vida breve' telesailaren lehen atala proiektatuko da, Movistar Plus+-en komedia originala. **Cristobal Garrido** eta **Adolfo Valor** ('Reyes de la noche') sortzaileek eta **Carlos Scholz** ('Awareness') protagonistak aurkeztuko dute, **Susana Herreras** telesaileko ekoizle exekutiboak lagunduta.

'La vida breve' Espainiako historiako erregealdirik laburrenean Felipe V.aren semea zen Luis I.arekin izandako gertaera harrigarriak kontatzen dituen telesaila da. Komedia baten energiarekin eta gorteko konspirazioen tentsioarekin, **Carlos Scholz**, **Javier Gutiérrez**, **Leonor Watleros** eta **Alicia Armenteros** dira telesailaren protagonistak.

Ikusle Gonbidatua

Biharko Crossover jaialdiaren programak, halaber, 17:30ean, eta Tabakalerako zinema-aretoan, euskara hutsean egiten den 'Ikusle Gonbidatua' atalaren beste hitzordu bat ere izango du. Oraingoan **Elena Caballero** 'La Basu' izango da gonbidatua, Espainiako hip hoparen artista esanguratsuenetakoa bat, eta bere telesail gustukoenez eta narrazio zatikatuekin duen harremanaz hitz egingo du.

Hitzordu gehiago ostiral eta larunbatean

Jaialdiak ostiralean jarraituko du Alde Zaharreko Santa Teresa Komentuan, 'Ikusle Gonbidatua' saioarekin, 17:30ean. Oraingoan Yurre Ugarte gidoilariak parte hartuko du.

Geroago, 18:30ean, 'La sustancia, actrices contra el tiempo' elkarrizketa izango da, eta emakumeek telebistako fikzioan duten paperari helduko zaio, **Ane Gabarain** aktorearen eta **María Guerra** eta **Mariola Cubells** kazetariaren eskutik.

Gauean, Tabakalerako LABe jatetxean 'Series Gourmet' saio berri bat izango da, **Diego San Jose** gidolariarekin eta **Arturo Valls** aurkezle eta aktorearekin.

Crossover larunbatean bukatuko da. Egun horretan, 12:00etan Alde Zaharreko Santa Teresa Komentuan, 'Las hijas de la criada' solasaldia egingo da. Bertan, 2023an Planeta Saria jaso zuen eta Atresmediak serie formatura egokitzen ari den **Sonsoles Onegaren** eleberriaren pantailarako bidaia aztertuko da.

Arratsaldean, 17:30ean, Tabakalerako zineman, 'Mariliendre' estreinatuko da eksklusiban, Atresplayer-en jatorrizko telesaila, **Javier Calvok** eta **Javier Ambrossik** ekoitzia. **Javier Ferreiro** sortzaileak eta **Martín Urrutia** musikari eta aktoreak eta **Omar Ayuso** aktoreak parte hartuko dute topaketan.

Jaialdiaren zortzigarren edizio honi amaiera bikaina emango dio 'Cosecha del 25' saioak. Bertan, kultura-kazetari talde batek urteko serieen errepasoa egingo du, eta 'Batalla de Series' ezagunak animazioko bi klasiko jarriko ditu aurrez aurre: 'Los Simpson' eta 'Padre de Familia'. Bi saio horiek Tabakalerako Z Aretoan izango dira.

Donostia, 2025eko martxoak 26.